

DISTIRA EDER BAT

Saioa Gartzia Garraus

Bera

Distira, distira, zer da distira?
Zure izarren edertasuna da distira,
horko itsaso gardenaren isla;
dena da zikloaren edertasuna, hara!,
fokuek ematen duten argia da.
Distira zer den ez badakizu, dardara
sentitzen duzunean joan hondartzara,
eta hor dauden izarrak izanen dira.

Distira, distira, zer da distira?
Gure arbasoen edertasunaren begiak.
Begiak, begiak, zer dira begiak?
Begiak dira, distiraren dizdizen haziak.
Haziak, haziak, zer dira haziak?
Haziak dira, gauza hagitz gogor eta tikiak.
Tikia, ttikia, zer da ttikia?
Tiki-ttikiak dira dizdizak,
baina handi-handiak, argiak.